



LANDARTE 2019 NAFARROAKO ARTE ETA LANDATARTASUN PROGRAMA

ANTOLATZEN DUTE

**Kultura, Kirola eta Gazteria
Departamentua**

**Kultura Zuzendaritza Nagusia -
Vianako Printzea Erakundea**

LAGUNTZEN DUTE

**Landa Garapena,
Ingurumena eta Toki
Administrazioa
Departamentua**

Museoen Zerbitzua

**Lurralde eta Ingurumen
Jasangarritasunaren arloko
Berrikuntza eta
Ezagutza Zerbitzua**

Jorge Oteiza Fundazio Museoa

**Udalak: Abartzuzak / Ablitas /
Auritz-Burguete / Biurrun-Olcoz /
Cabanillas / Eslaba / Sesma /
Eguesibar**

Landarte 2019-k proiektu guztiak lotzen ditu oroimenaren hari eroalearen bitartez. Artistek eskainiko dituzten arte garaikideko piezak oroitzapena, arrastoa, nortasuna eraiki eta berreraikitzearen inguruan iraganaren botere materiagabeak eta hau berreskuratzearen inguruan arituko dira. Iragana ahalik eta argien irakurri, bizitakoa ezaguarazi eta guztiak irautea, oroitzapena eta oroimena gure nortasunaren zati direlako. Nortasuna denboran zehar sostengatzen da, iraganak gure denboran iraun eta lekualdatzen delako.

Aurtengoan, Nafarroako hirugarren arte eta landatartasun programan, Foru-Erkidegoko 9 herrik parte hartuko dute, bakoitza bere proiektu artistikoarekin, beti bezala landa-eremuarekin loturik. Proiektu orotan gure ingurune geografikoan bizi diren artistek lagundu eta haiek zuzenduak izateaz gain, herri parte-hartzaileetako bizilagunekin batera obra artistikoak garatuko dituzte.

Landarte 2019-ko zortzi herriak dagozkien proiektuekin (horietako zazpi arte eta landatartasun programak antolatuta eta gainontzeko biak Nafarroako Museo Zerbitzuak zuzenduta).

Eslaba 1

**-Korrontxos. Ibilbide
megalitikoak. *Eskultura,
dantza eta pintura. Félix
Zaratiegui.***

Aurten Eslaba eta bertako Felix Zaratiegui artista berriz ere Landarteren parte izango dira. Oraingoan Ibilbide Megalitiko izena hartzen duen proiektuaren seigarren eta azken lekua hartzen dute. Iaz bosgarrena eraiki zuten, zenbait metroko garaierako harrizko erraldoia, Bidaztia. Aurten, berriz, Korrontxo lana jasoko dute, historiaurreko harrespilak oinarri hartuz egindako monumentua, aldi berean herriko ohiturak irudikatzen dituena. Bestalde, dantza eta margogintza tailerrak ere eskainiko dituzte.

***Abuztuak 10, larunbata,
21:30ean Inmaculada
Concepción kalean.
(zenbakirik gabe).***

Ablitas 2

**-Dorre muga.
*Arkitektura. Orekari
Estudio.***

Orekari estudio-k herriko biztanleak gidatuko ditu Gazteluko dorrea era sinbolikoan berreraikitzen parte har dezaten. Iraganeko garrantzia eta eitea berreskuratzea xede izanda, bere garaian herriaren harrobi izan ziren Gazteluko harri horiek bertara itzuliko dira, era sinbolikoan. Dorre berria altxatuko dute biztanle bakoitzak eramango duen material arinez osatutako harri guztiekin.

***Abuztuak 11, igandea,
12:30ean Gazteluaren
ondoan.***

Auritz-Burguete 3

**-Kontramapa.
*Kartografia, pintura,
josketa eta ehuna. Teresa
Sabaté eta Virginia
Santos.***

Auritz/Burgueteo bunkerrak berreskuratzeo lan arkeologikoez markatzen dituzten ibilbideak erabiliko dituen proiektua proposatu dute Teresa Sabate eta Virginia Santosek, ibilbide hauek beste ikuegi batetik ikusteko. Gudarako espresuki egindako egitura hauek birmoldatu eta ikuspuntu berria eskaintzeko, josketa, marrazki, collage edo kontakizuna baliatuz kontramapa egin dute.

***Abuztuak 17, larunbata,
12:00etan Kultur Etxean.***

Abartzuzak 4

**-Iragana eta oraina,
irudia ibilgailu gisa.
*Argazkia / Irudi digitala.
Ricardo Laspidea.***

Abartzuzak eta Ricardo Laspidea disziplina anitzeko artistak, udalerriko agiri-funtsetik irudiak eta ikus-entzunezko gaiak jasoz, herriaren iragana eta oraina lortzen dituen zubi artistikoa eraikiko dute. Bukaerako emaitzak euskarri tradizioaletan ez ezik, elementu arkitektonikoren batean ere integratuak izango dira.

***Abuztuak 24, larunbata,
19:30ean Foru Plazan.***

Eguesibar 5

**-Irintzia. *Irudia eta soinua,
Iosu Zapata.***

Iosu Zapata soinuak, irudiak eta landa-eremuko zein hiriko oroitzapenak elkartzen dituen proiektua sustatzera dator Eguesibarrera. Artistak, natura hiri-hedapenarekin kontrajutzen duen ikus-entzunezko obra sortzeko asmoz, grabazio bisual eta soinuakoa nahiz irratiko saioekin zenbait tailer emango ditu. Horrez gain, Eguesibarren zehar mugitu daitekeen irati estudio bat prestatuko dute erabilera esperimentalerako. Naturaren jasangarritasunarekin bat eginik, estudio mugikorra bizikleta-triziklo batean eraikiko da. Lurralde eta Ingurumen Jasangarritasunaren arloko Berrikuntza eta Ezagutza Zerbitzua parte hartzen du proiektuan.

***Abuztuak 31, larunbata,
19:30ean Oteiza Museoa
(Altzuza).***

Biurrun 6

**-Memoria mugimenduan.
*Arte eszenikoak, dantza
garaikidea. Fueradeleje
eta Marisa Serrano.***

Nafarroako Fueradeleje dantza-konpainia profesionalak zuzentzen du Biurrunen Memoria mugimenduan; hau da, dantza garaikidea, eszenografia eta parte-hartzea sustatzeko eta parte hartzeko eta hezkuntzarako proiektua.

***Irailak 1, igandea, 19:00etan
Jai Eder Plazan.***

Cabanillas 7

**-Oroitzapenak airean.
*Poesia eta ilustrazioa.
Irati FG y Nerea Aguado.***

Cabanillas, Irati FG artista bisuala eta Nerea Aguado olerkigileak istorioko pertsonaiei irudia eta ahotsa jarriko dizkiete. Horretarako, haien bizitzak, lanak, artisautzak, emakumeen eragina eta aspaldiko argazkiak aztertuko dituzte. Jasotako eta hausnartutako lanari forma emateko, poema eta marrazkiak sortuko dituzte, amaierako ekitaldian hezurmamtuko direnak biztanleen laguntzaz egingo duten fanzinean.

***Irailak 7, larunbata, 20:30ean
Udaletxearen Plazan.***

Sesma 8

**-Espartzua: partekatutako
kultura. *Espartzua eta
tradizioa. Mari José
Recalde.***

Aurten ere, ondoz ondoko hirugarren urtez, Sesma herriak Landarte programan parte hartuko du espartzuarekin duen esperientzia artistikoarekin jarraituz, Mari José Recalde artista plastikoaren laguntzarekin berriro ere. Oraingoan iaz hasitako estalkien proiektuari amaiera eman ez ezik, populazio etorkina integraztearen eboluzioa islatzen duten piezak diseinatu era gauzatuko dituzte. Nafarroako Museoen Zerbitzuak zuzendutako proiektua da.

**Proiektuen inguruan gehiago
jakin nahi baduzu, hurrengo
web-orria bisitatu:
www.landarte.es**

